

❧ Hitz eta Pitz ❧

Akordatzen, Joxe?


MIEL A. ELUSTONDO



—Akordatze' al tze'a, Joxe?... Zeuk kontatuta dakit... Ataunen jaio zinela, San Gregorion. Txikitan, negua luzea eta iluna, beltza, izan ohi zela zuen auzo Ergoienan. Lan faltarik ez zela izaten Sariarte baserrian. Gari-jotzea zela, artazuriketa, gaztaina biltzea... Lanok egin bitartean kontu kontari kontu zaharrak kontatzen zituztela zuek baino zaharragoek. Orduan entzun zenituela *Txomin Ipurdi*, *Mari Xor*, *Txerri beltza*, *Aralarko txabola* eta gainerako kontuak. Guraso, osaba-izeba, aitajaun-amandreen inguruan lanean, batzuetan, eta endredoan, besteetan, entzuten omen zenituzten kontuak... Akordatze' al tze'a, Joxe?

—...

—Zeuk kontatuta dakit. Hamar bat urteko mutikoa zinela Lazkaora eraman zintuztela, fraide izateko asmoan, baina urtea igaro eta laster zinela atzera Sariarten, osasun eskasekoa zinelako, nonbait. Hamasei urte zenituela berriz joan zitzaizkizula fraideak bila, eta han joan zinela berriz. Erakutsi zizkizutela goiak eta beheak, eta zuk inprenta jo zenuela begiz. Hango makinak txoratu zintuela, haren hotsak: Traka-traka-traka... papera botatzen zuen bitartean. Sorgindu zintuela inprentak. Han lan egitea izan zenuela amets. Etxekoak betiko agurtzean, aitag esandakoa: «Hi, Joxe, komentuko bizitzak ondo hartzen ez bahau, edo osasunak laguntzen ez badik, badakik etxeko atek zabalik izango dituala beti». Etxeko atek zabalik beti. Gogoan gelditu zitzaizun aitaren esan hori... Akordatze' al tze'a, Joxe?



mukizuak ere ez omen ziren orain hango nagusi Rufino, honen anaia, Bittor, edo gazteago Juan Luis Plazaola... Zaindari omen zintuzten. Eta arrosarioa errezatu behar, edo artoa zuritu behar, eta jolasean mutikoak, geldirik egoten ez, eta esaten zeniola: «Eta txintxo portatzen bazarete, kontu zaharra kontatuko dizuet gero». Eta kamamila biltzera joaten zinetenean ere, atsedean hartzeko garaian kontu zahar eske hasten omen zitzaizkizun gaztetxo haiek, Lazkaon nahiz Estibalitzen adinean aurrera doazenak... Akordatze' al tze'a, Joxe?

—...

—Zeuk kontatuta dakit, meza eman eta sei urtera, 1956an, fraide gazte bila etorri zirela Lazkaora Caracaseko beneditarrak, jatorriz alemanak, zuen nagusiarri esanez: «*Padrecito*, zuek hemen guk behar duguna daukazue. Guk, han, zuek hemen behar duzuen... Jende beharrean gara. Diruz lagunduko dizuegu, hemendik hara gurekin doazen fraideen lanaren ordainetan». Eta borondatezkoak eskatu, eta zeure burua eskaini zenuela. Esan zizula, «zoragarri ibiliko zara Venezuelan», hark, eta zuk: «hemen ere zoragarri nabil!». Berak segi: «Bada, atera kontuak, han hobeto!». Eta halaxe izan zela, 1956tik 1959ra izan zinela Caracaseko Saint Otilien kolegioan, eta inoizko urterik ederrenetakoak izan zitzaizkizula, osasunak lagundu zizula, giroa ere lagun... Lehenengo urtean irakasle jardun zenuela, baina ez zenuela zeure burua horretan ikusten. Hamabi-hamahiru urteko mutikoak ikasle, ez zutela gogo handirik. Hala ere, noiz edo noiz kontu zaharrak kontatzen aritu zinela, *Mari Xor*, *Txerri Beltza*... baina «Txerri beltza jan huen eta pagazak» gaztelaniaz esateak indarra galtzen zuela... Akordatze' al tze'a, Joxe?

—...

—Zeuk kontatuta dakit, urtea eskolak emanen igaro eta gero, lanok utzi eta parrokiari lotu zitzaizkiola. Hango meza esatea, azken igurtzia ematea, aitortzak entzutea... hango bataio eta ezkontza, lehenengo jaunartze eta hileta, kofradia eta gazteria... Behin, bazkalondoan, ordu bietan

—...

—Zeuk kontatuta dakit, inprentan lan egiteko asmoan Lazkaora sartuagatik ere, ez zenuela makina hartan batere lanik egin. Ikasten jarri zintuztela, leitzen eta eskribitzen trebatzen, estudiatzen. «Ez, ez, ni ez naiz estudiatzera etorri», esan zeniola komentuko nagusiarri, «ni inprentan lan egitekotan etorri naiz». Baina berak, enkargu eta mandatuak zuzen hartzeko aitzakia jarri zizula, eta estudiatzen jarri zintuela, beraren ondoan. Zortzigarren egunean, latina erakusten hasi zitzaizula, hamar urtean ez zenuela estudiatu besterik egin, eta kito betiko zure inprenta-afanak, zure ametsak, ez omen zenuen inprenta bizian ukitu... Akordatze' al tze'a, Joxe?

—...

—Zeuk kontatuta dakit, eta zuri etorria moztu zitzaizun garaian, zu baino gazteagoek kontatu ziguten. Zu fraide gazte Lazkaon, eta hamar urteko

jendea konfesatzen hasi eta goizeko ordu txikiak arte egon omen zinen horretan. Leher eginda, zutik egon ezinik, elizatik irten eta igerilekura egin omen zenuen jauzi, beste fraide gazte batekin batera. Eta, goizean goiz, atzera jendea aitortzen segitu behar izan omen zenuten. Inor hiltorian eta haren etxera joateko deia egin zizutela inoiz. Baita joan ere zu. Ilunduta itzuli omen zinen oinez komentura: «Taxia deituko dugu...», gaixoaren senideek. Zuk, ezetz. «Ez al dizu beldurrik ematen bide ilunotan barrena garai honetan zeu bakarrik abiatzeak...?» Zuk, beldurra, kontu zaharretako sorgin eta jentilei bezainbat... Akordatze' al tze'a, Joxe?

—...

—Zeuk kontatuta dakit, inoizko urterik onenak izan zirela Caracasekoak. Baina hemengo nagusiek atzera deitu eta etorri zinela, pozik hona ere, Lazkaora lehenengo, eta Estibalitzera urte gutxira. Laster hasi zitzaizkizula, garai bateko kontu zaharrak paperean jarri behar zenituela esaka. Zuk, ez zitzaizula haiek eskribitzea ateratzen, kontatzea baizik. Hala ere, eskribitu zenuela bat, *San Migel aingeruaren kondaira*, eta Principe de Viana aldizkarian agertu zela. Handik urteetara, Estibalitzen gertatu omen zen *Laxaga*, Jose Maria San Sebastian, aita Mauro Elizondok zituen Sabino Aranaren eskutitz zenbaiten peskizan, eta zure kontuen berri eman ziotela. Hark bultzatuta aldatu omen zenituen mintzotik paperera txikitari Sariarten entzundako kontuak. Abstrakzio-ariketa egin omen zenuen, eta zuen abadea Ixidro Baztarrika kartzelatzeak sortu zizun ondoez eta estresa arintzeko botika izan zenuela *Kontu Zarrak* liburu berdea eskribitzea, 1980an argitaratu zen liburua... Akordatze' al tze'a, Joxe?

—...

—Zeuk kontatuta dakit, kontu zaharrak eskribitu eta gero Barandiaranen lanera jo zenuela, ipuinon bila, eta hantxe aurkitu zenituela, eta orduan zure denak txikitzeko asmotan izan zinela. Eskerrak Latxagari! Zureak eta zure lagun Joxemielek



bildutakoak ez omen ziren guztiz berdinak, eta hainbestean konformatu zinela, lan handia egina zenuela sekula buruan ibili gabe. Halaxe esaten zenuen beti: «Zorioneko kontuak eskribitu banituen ere, gauza gutxi jarri nuen: besteri entzundakoa paperera aldatu besterik ez!». Behin eta berriz eta askotan esaten zenuen zuk esateko zenituen denak esanda daudela, eskribituta, eta zeuk adieraziko zenituzkeen baino hobeto adierazita, gainera. Hori esaten zenuen... Akordatze' al tze'a, Joxe? Bagenekien zuk benetan sinesten zenuela, baina, aldi berean, bagenekien oker zeundela, artista handia zinela kontu zaharretan, eta artista handi nahiz txiki, bihotzez maite zintugun... Telefonoz jotzen genuenean, «Estibalizko santutegia. Bai esan!», gozamina genuen... Akordatze' al tze'a, Joxe?

—...

—Zeuk kontatuta dakit, urtean behin Ataunen izaten zinela, Sariarten, fraideari dagozkion opo-

rretan. Joxemieli bisitan joaten zintzaizkiola, eta Pilar ere agurtzen zenuela... Zu baino lehen joan ziren biak... Esaten zenigun orain ez dela garai bateko udazken ez negurik, ez Ataunen ez inon. Bukatu zirela garoak, artoak, gariak... Fabrikak agintzen duela. Iluntze luzerik ez dela, familia handirik ere ez etxeetan, eta sukaldean telebista ohi dela nagusi... Eta zu Caracasko bide ilunetan beldur izan ez zinen bezala, zure iloba txikiak ere ez zuela inoiz kezkarik izan zuei sorgin-leku izugarriak zitzaizkizuen parajeak ilunpetan ibiltzea. «Horiek joan ziren, osaba! Ohituta nago hemen gauetz ibiltzen!», esan izan zizula zure iloba Joxe Migelek, garai hartan hamabi urtekoak. Akordatzte' al tze'a, Joxe?

—...

—Ez zara akordatzen... Ez zara akordatzen zenbat jende etorri den, zenbat jende izan duzun ondoan urte mordoan, zure lanak guztiz sorginduta.

Jose Maria San Sebastian *Latxaga*, Joxe Martin Apalategi, Bernardo Atxaga, Antton Olariaga, Teresa Castro, Pako Izagirre, Patxi Zubizarreta, Pello Añorga, Joxemari Carrere, Yolanda Arrieta, Pello Esnal, Ataun bertako Joxemiel Barandiaran herri-ikastetxeko irakasleak, Jabier Kaltzakorta... Ez zara akordatzen... Ez zara akordatzen, baina ez dio inporta. Geuk kontatuko dizkizugu urte askoan zeuk kontatu izan dizkiguzunak! Behin eta berriz eta askotan kontatuko dizkizugu denak, Sariartekoak, Lazkaokoak, Caracaskoak eta Estibalizkoak. Eta, tartean, baita bizi osoan kontatu izan dituzun kontu zahar miragarriak ere. *Goñiko Zalduna*, *Txomin Ipurdi*, *Morroiz azkarra*... Akordatzte' al tze'a, Joxe? Akordatzte' al tze'a? Akordatzen?

—...

—Gu bai, akordatzen gara zutaz, maitasuna ez da ahazten, Joxe, eta maite zintugula, gero!

Joxe Arratibel Zurutuza (*Ataun, 1923-Estibalitz, 2011*).

Fue fraile benedictino y escritor. Fue autor de más de un libro de narraciones populares que oyó en edad temprana en su caserío natal. Sin embargo, no se decidió a escribirlos y publicarlos hasta la década de los 70, atendiendo la petición de diferentes personas que visitaban el monasterio de Estibalitz (Araba), donde Arratibel residió la mayor parte de su vida. Kontu zarrak (La Gran Enciclopedia Vasca, 1980, Kontu Zaharrak, Erein, 1995) es su obra más importante, y prácticamente la única, pues de aquella derivaron obras menores como Eramun eta Mirentxu (Erein, 1997), Sorginen Urrezko Maindirea (Erein, 1999), o Izugarriak (Pamiela, 2008). Está considerado como uno de los últimos narradores de la literatura oral en euskera.

En este artículo, su autor refleja uno de los últimos diálogos mantenidos con Joxe Arratibel, cuando ya enfermo de Alzheimer, había perdido su capacidad de habla y, quién sabe, su memoria. A falta de interlocución, el autor devuelve a Arratibel algunos apuntes de su biografía a modo de: «¿Te acuerdas, Joxe?».

Joxe Arratibel Zurutuza (*Ataun, 1923-Estibalitz, 2011*)

was a Benedictine monk and writer. He was the author of several books of popular narrations that he heard at a young age on the Basque farm where he was born. Nevertheless, it was not until the 1970s that he decided to write them down and have them published in response to a request from various people who visited the monastery at Estibalitz (Araba), where Arratibel spent most of his life. Kontu zarrak (La Gran Enciclopedia Vasca, 1980, Kontu Zaharrak, Erein, 1995) is his most important work and practically the only one since from it spawned lesser works like Eramun eta Mirentxu (Erein, 1997), Sorginen Urrezko Maindirea (Erein, 1999), or Izugarriak (Pamiela, 2008). He is regarded as one of the last narrators of oral literature in Basque.

In this article its author reflects on one of the last conversations he had with Joxe Arratibel who, by that time, was afflicted by Alzheimer's and had lost his ability to speak and, who knows, his memory as well. For want of interlocution, the author refers to some notes in Arratibel's biography and asks him: "Do you remember that, Joxe?"